

## BILL BURNS ARTISTA

Hizkuntza ote da gizakia animaliangandik bereizten duen ezaugarri garrantzitsua? Ideia honen inguruan ireki da Donostiako Kristina Enean Oier Etxeberrriak antolatuturiko «Zoo. Hitz basatia» erakusketa. Broodthaers, Wutz eta Burns-en lanak ikusgai.

# «Txorientzat oso lurralde garrantzitsua da Afganistan»

Jon MANTZIZIDOR

Bill Burns 1957an Kanadan jaiotako artistaren lanak formatu ezberdinetara egokitzen dira. Argazki, eskultura, marrazki edo liburuetan bere interesen berri ematen digu umore fina erabiliz. Interes horiek gehienetan animalien munduarekin lotutakoak dira: nola erreskatatu igel bat Amazoniako oiha-netik, eta zertarako? Gas-mozorroa, eskularru txikiak eta buruko kaskoa biltzen dituen "Animalientzako babes-ekipamenduak" proposatuz. Edo Afganistango txorien apeu edo erreklamoak erabiliz publiko kontzertu bat ematera gonbidatu, Kristina Enean ekainaren 17an egin zuen moduan.

### Zer esan diezagukezu txori erreklamoak agertzen diren obra honi buruz?

Erakusketaren parte honek "Bird songs for San Sebastian" du izena. Batetik, partitura batzuk ditugu. Bertan, txoriei babes tresnak erabiltzeak nola eragingo liekeen ikusten dugu. Txorien kantua eraldatu egingo litzateke, adibidez, babes-betaurrekoak jantziko balituzte.

Musikari batekin lan egin nuen eta txorien benetako kantuetan oinarrituz hipotesiak atera genituen. Partiturez gain, txori erreklamoak daude eta horiek nola erabili azaltzen duen liburuxka bat ere bai.

### Objektu hauek guztiak «Bird songs for San Sebastián» lanaren parte dira?

## LAN DIDAKTIKOA

*«Nire asmoa galderak planteatzea da: naturaren historiak mundu intelektualean lekua duen ala egitura kolonialaren parte den uste dugun jakitea, hain zuzen.»*

Obra hau lehendik egindako lan batzuetan oinarritzen da. Egia esan, gero *performance*-an erabiliko ditudan txori erreklamo hauek Afganistango txori endemikoei dagozkie. Beraz, ez da zuzenean Donostiari buruzkoa. Txoriek ez dituzte mugak kontuan hartzen. Uste dut interesgarria dela lotura politikoa ere. Ekialdearen eta Mendebaldearen artean dago, baita Iparraldearen eta Hegoaldearen artean ere. Txorientzat oso lurralde garrantzitsua da Afganistan.

### Zer diozu igela eta beste hainbat objektu azaltzen dituen argazki honi buruz?

Musika-tresnak eramateko moduko maletak egin nituen, oso dotoreak, eta bertan animaliak salbatzeko kit-ak jarri nituen. Adibidez, igel bat Amazonian erreskatatzen baduzu eta Lehen Munduko zoo batera eraman nahi baduzu, hemen horretarako beharrezko den guztia daukazu.

Jokoan dagoen beste ideia bat iragarki korporatiboarena da. Proiektu honetan korporazioaren ideia eta animaliak babestearen arteko nahaste bat ere badago. Korporazioaren ideologia animaliak babestearen ideologia bihurtzen da. Tentsio moduko bat sortzen da, korporazioaren ideologia ez baita animaliak babesteko era egokiena.

### Noiztik interesatzen zaizkizu animaliak zure lanean?

Animalien inguruan aspaldidanik egin dut lan, baina uste dut modernitatea, di-ruarekiko erlazioa eta horrelako gauze-kin ari nintzela hasierako obretan. Eta erlazio horiek beste edozein arlotan baino hobeto ikusten nituen animalien inguruan. Intereseko leku asko aurkitu daitezke artearen ekonomia eta politika ekonomikoaren arteko erlazioan.

### Zer dela-eta kokatu dituzu «Artic series» saileko argazki handiak hain behan? Umeen munduarekiko keinu bat da ala animalien ikuspuntutik begiratu behar ditugu?

Gorputzetik gertuago egoteko. Hori pinturatik ezagutzen dut; gorputza bultzatu egin dezakezu argazkiaren bidez. Interesgarria iruditzen zait pixka bat baxuago jarriz, argazkiarekiko era fisikoago batean harremandu ahal izatea. Baina aldi berean, umeez pertzepzioarekin duten erlazioa nuen buruan.

### Argazki hauek, non natur historiako liburuetatik ihesi doazen jostailuzko animaliatxoak agertzen diren, badute zerbait fikziotik, narratibotik, eta ia-ia marrazki-bizidunetatik ere.

Bai, hala da. Batzuetan eskalarekin jokatze-ko liburuak nik neuk egiten ditut, argazkietatik abiatuz. Hemen ikusten diren liburu gehienak faltsuak dira.

### Haurrekin ere egin duzu lan, zer nolako obrak dira?

Bideoak dira, umeez txori erreklamoen erabilpena azaltzen digute. Gustuko izan nuen haurrek proiektu hau nola interpretatzen zuten ikustea. Proiektuan zein modutan kolaboratu erabaki behar genuen, eta haurrek esan zuten beraiek txorien izenei buruz, non bizi diren eta egiten dituzten soinuen inguruan hitz egin nahi zutelara. Bideo hori gela didaktikoan erakusten da.

### Lan guztiak dute zerbait didaktikoa, aurkezteko eragatik-edo, baina baita azaltzen diren elementuengatik ere: liburuak, entziklopediak...

Nire asmoa galderak egitea da: naturaren historiak mundu intelektualean lekua duen ala egitura kolonialaren parte den uste dugun jakitea, hain zuzen ere.

Horretaz gain, nire bizitzaren narrazioak ere garrantzia du historiaren barnean. Beti dago gu, artistok, xelebreak garen ideia: artistak ezagunak bihurtzen garela eta gure bizitzak garrantzi handiagoa hartzen duela egiten dugun lanak baino.

### Horrekin lotuz, zer diozu Homer Simpson azaltzen den marrazki txiki honi buruz?

Kontua da 1994ean nire lehen erakusketa egin nuela. Bertan "Safety gear" lana azaltzen zen. Prentsan oihartzun handia izan zuen, eta gutxi gorabehera bi urtera, Simpson familiaren atal batean, Homer artista kontzeptual bihurtzen da eta animalientzako babes tresnak egiten hasten da. Gertakizun hori erabili dut oinarri moduan.

### Lehenago Afganistan aipatu duzu eta zure lan ezagun batek Guantanamo hartzen du aintzat. Nola egiten diozu aurre hain leku gatazkatsuei buruz lan egiteari?

Lan hauek "Safety gear for animals" sailean sartzen dira, eta proiektu honen jarraipen bat "Safety gears for primates" deiturikoa da, Guantanamo buruzkoa hain zuzen. Hemen liburuxka bat dugu horri buruz. Animalien eta gizakiaren arteko lotura bat egiten aritu naiz, eta baita gerra materialari buruzkoa ere.

Liburuxkak bi gauza azaltzen ditu: batetik, presondegira iristean jasotzen duzun kit-aren ilustrazioak, eta bestetik, tortura moduan presoek entzunarazten zieten kantu zerrenda.

Proiektuaren beste atal bat kantu zerrenda jasotzen duten hiru disko eta plano batzuk biltzen dituen kutxa bat da. «Ikea estiloa jarraituz», planoek zaintza dorre bat eta presondegiko ziega bat nola eraiki erakusten digute.



Xabier UBEDA